

[susa](#) | [literaturaren zubitegia](#) | [literatur emailuak](#) |
[armiarma](#) | [klasikoak](#) | [aldizkarien gordailua](#) |
[basquepoetry](#) | [euskarari ekarriak](#)



[kritiken hemeroteka](#)

7.423 kritika

- [Honi buruz](#)
- [Bilaketa](#)
- [Hasiera](#)

Azken kritikak

« [Gertatzen dena](#) | [Herio gorriaren aurkako oroimen kirurgikoa](#) »

Hori da umorea, maisu! / [Mo Yan](#) (*Aiora Jaka - Maialen Marin*) / Elkar, 2013

Gosearen idazle Iker Zaldua / *Gara*, 2014-03-16

Mo Yani fantasia hutsa irudituko zitzaiokeen, soldaduskan zegoela idazten hasi zenean noizbait Literaturako Nobel saria jasoko zuela esan izan baliote. Gosea ongi ezagututako haur eta gaztetxo izan zen, Txinan tripa-zorrien soinua eguneroko ogia zen garaian landa-eremuko haurra. Horrenbestez, idazten hastearen arrazoia sari potoloen ametsetatik aparte bilatu behar dugu, berak aitortu zuenez: “Orduan jakin nuen: idazle izanez gero, jiaoziak jango nituen egunean hirutan, haragiz beteak gainera, hori bai bizitza zoriontsua!”. Egia esatera, sabela berdintzea baino sari potoloagorik ez dago zuhaitzen enborrak zuritzen ibili den haurarentzat.

Haatik, idazle izateko eta hori ogibide bihurtu ahal izateko, abilezia behar da, trebetasuna behar da. Mo Yanek badauka zer konta eta badu ongi kontatzeko abilezia, errealitate gordina umorez azaltzeko adinakoa, absurduarekin jokatzeko adinakoa. Hain zuzen, absurduaren trataera dela medio, Kafkarekin alderatu izan dute sarritan.

Egiaz, egoera absurduak aurkezten ditu, baina atzean berak ezagutu zuen landa-eremuko Txina hori salatzeke grina agertzen da indarrez, 60ko hamarkadako garai “arraro eta fanatikoa”. Hitz egin nahi izan du Mo Yanek, egia esateko premia zegoela iritzita.

Hala, ipuin-bilduma hau kritika sozial batekin abiatzen da: erretiroa hartzeko adinera iristeko hilabete baino falta ez duen langilea kaleratu egingo dute eta egoera absurdu horren aurrean irtenbide harrigarria bururatzen zaio, abandonatutako autobus bat berriztatu eta maitasuna publikoki erakustea debekatua dagoen herrialdeko maiteminduentzat habia bat eraikitzea. Bildumako ipuin luzeena da eta gehien gustatu zaidana, umore zertzeladak apartekoak dira eta amaiera, egoera bezain absurdua.

“Gizona eta Piztia” du izenburua bigarren ipuinak. Bakardadea hitz larritan, gizakiak gizatasunik ezak eraginda bizi duen bakardadearen ispilu dela esango nuke, agertokia Japonia da eta txinatar soldadua bertako leize-zulo batean gordeta dago, noiz eta Txina eta Japonia gatazkan zeuden garaian, 30eko hamarkadaren amaieran. Deskribapenak zehatzagoak dira, erritmoa mantsoagoa da eta argakia lausoa. Elkarriketarik ez

dago, idazlea bakarriketan ari zaio idazleari, mezu gordin bat igortzeko asmoz, azken lerroan nabarmentzen duena: “benetan gertatutakoa errespetatu behar da”.

“Hegaldia” izenekoan absurdua nabarmenago agertzen da eta, horrekin batera, fantasiaren mozorroa ikus dezakegu agerian, berriro ere errealtate beltzaren adierazgarri. Debekatutako harremanek egoera ezin absurduagoa jartzen dute aurrez aurre eta fantasiak amaiera harrigarria ematen dio dramari.

Azkenik, nire ustez ipuin gordinena dena aipatu nahi nuke. Bilduma honetako azkena, “Haur abandonatua”. Bertan haur bakarraren politika ulertezin eta krudela ekartzen digu idazleak. Bikote batek haurtxo (neskatila) jaioberri abandonatu bat aurkitu eta bere gain hartzea erabakitzen du, berezko haur bat izateari muzin eginez. Gordintasun osoz kontaturik dago hau; hala behar zuen gainera. Idazleak berak ere zalantzan jartzen du gizakia halako egoeren aurrean: “Gizateriaren bilakaera halako mailara iritsi da, non animalien mundutik bereizten duen marra paperezko orri bat bezain mehea baita”. Ileak tente jartzeko istorioa egiazko historia baten barnean.

Liburuak Jokin Zaitegi Itzulpen Saria eskuratu zuen 2012an eta beste behin itzultzaileen lan itzela azpimarratu nahi dut horren harira. Horrenbeste gustatu zaidan esaldi bat ekarriko dut horretarako: beste aldean itzultzailea dago.

Azken kritikak

[Trikua esnatu da](#)

[Lorea Agirre / Idurre Eskisabel](#)

Irati Majuelo

[Feminismoa % 99ren alde](#)

[Askoren artean](#)

Amaia Alvarez Uria

[Lurra eta dardara](#)

[Askoren artean](#)

Igor Estankona

[Miñan](#)

[Amets Arzallus Antia](#)

Javier Rojo

[Poesia kaiera](#)

[Louis Aragon](#)

Joannes Jauregi

[Arimaren etorkizuna. Estandar emozionalaren sorrera](#)

[Eva Illouz](#)

Ibai Atutxa Ordeñana

[Iturria](#)

[Unai Elorriaga](#)

Estibalitz Ezkerra

[Bazterreko ahotsak](#)

[Miren Tirapu Goikoetxea](#)

Javier Rojo

[Izendegi hutsa](#)

[Fito Rodriguez](#)

Mikel Asurmendi